

NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEK FEDERAZIOAK
2020ko ABENDUAREN 11n ERA TELEMATIKOAN EGINDAKO
BATZAR NAGUSI ARRUNTAREN AKTA

Abartzuzako Udala
Aberingo Udala
Adiosko Udala
Oibarko Udala
Altsasuko Udala
Andosillako Udala
Agoizko Udala
Aranguren ibarreko Udala
Aresoko Udala
Argedasko Udala
Arroizko Udala
Aiegiko Udala
Azagrako Udala
Barañaingo Udala
Barasoaingo Udala
Barbaringo Udala
Bargotako Udala
Basaburuako Udala
Beireko Udala
Beriaingo Udala
Cadreitako Udala
Carcarko Udala
Castejongo Udala
Cintruenigoko Udala
Zizurko Udala
Doneztebeko Udala
Enerizko Udala
Lizarrako Udala
Etxalarko Udala
Etxarri Aranazko Udala
Etxauriko Udala
Ezkabarteko Udala
Galar Zendeako Udala
Garinoaingo Udala
Goizuetako Udala
Uharteko Udala
Irurtzungo Udala
Itzako Udala
Leringo Udala
Lezaungo Udala
Lizoain-Arriasoitiko Udala
Los Arcosko Udala
Lukingo Udala
Luzaideko Udala
Martziillako Udala
Melidako Udala
Mirafuentesko Udala
Noaingo Udala (Elortzibar)
Odietaiko Udala

NUKFren egoitza sozialean (Tutera kalea 20, Iruña) abenduaren 11n, arratsaldeko bost eta erdietan, NUKFren Batzar Nagusi Arrunta hasi da, era telematikoa, aldameneko toki entitateen ordezkariak bilduta eta estatutuek eskatzen duten quoruma edukita. Batzarraren buru den mahaia honako hauek osatu dute: Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn., Mario Fabo Calero jn. eta Berta Enrique Cornago and., lehendakaria, lehen lehendakariordea eta idazkari nagusia, hurrenez hurren. Hona hemen

GAI-ZERREDA:

- 1.- 2019/12/13ko Batzar Nagusiaren akta onestea.
- 2.- 2019ko Kontuak onestea.
- 3.- NUKFren 2020ko Kudeaketa Txostena onestea.
- 4.- NUKFren 2021eko Jarduketan Programa onestea.
- 5.- NUKFren 2021eko Aurrekontua onestea.
- 6.- Galde-eskeak.

Lehendakariak bertaratutakoei ongietorria eman die eta mahaiko kideak aurkeztu ditu. Arrazoi pertsonalak direla eta, Ander Oroz Casimiro NUKFren 2. lehendakariordearen ezin etorria adierazi du.

Lehendakariak azaldu duenez, osasun krisiagatik Batzarra era telematikoa egin behar izan da araudiak aurreikusten dituen baldintzen barruan. Ahalegin berezia egin dela esan du parte-hartzaileek gai-zerrendako puntu guztietan hitza hartzeko aukera izan dezaten eta aurrez aurreko batzarren eskema bera mantentzeko. Barkamena eskatu du batzarra era telematikoa egiteak sor ditzakeen zailtasunengatik nahiz eta erraza den aplikazio mota bat bilatzen saiatu diren.

Ondoren, Batzarraren nondik norakoak eta erabiliko den programa informatikoaren funtzionamendua azaldu ditu; hitza gaztelaniaz eta euskaraz nola eskatu eta nola bozkatu ere azaldu du.

Lehenengo gaiari heldu baino lehen, Idazkari Nagusiari hitza eman dio. Horrek akreditatu diren pertsona kopuruaren eta bilkurara batu berri diren pertsonen berri eman du eta Batzarra hasi ahal izateko quorum nahikoa

Erriberriko Udala
Oteitzako Udala
Iruñeko Udala
Azkoiengo Udala
Garesko Udala
San Adriango Udala
Zangozako Udala
Urraulbeitiko Udala
Eguesibarko Udala
Alesbesko Udala
Atarrabiako Udala
Arribe-Atalluko Kontzejua
Aurizberriko Kontzejua
Etxagueko Kontzejua
Eritzeko Kontzejua
Iurreko Kontzejua
Muru Artederretako Kontzejua
Otiñanoko Kontzejua
Urritzako Kontzejua
Zubiriko Kontzejua
Basaburua-Imotz Udal Elkartzea
Jurrmendiko Mankomunitatea
Izarbeibarko Mankomunitatea
Los Arcos aldeko Oinarrizko Gizarte
Zerbitzuen Mankomunitatea

dagoela adierazi du. Halaber, behin batzarra hasita, batuz doazen akreditatutako ordezkariak onartzen eta aintzat hartzen jarraituko dutela esan du.

Lehendakariak hitza hartu du gai-zerrendako lehenengo puntuari heltzeko.

1. gaia.- 2019/12/13ko akta onestea.

Deialdiarekin batera igorrita 2019ko abenduaren 13ko Batzar Nagusi Arruntaren aktaren kopia, aldez aurretik irakurri beharrik gabe, lehendakari jaunak galdetu du inork aktari oharrik egin nahi dion.

Oharrik ez dagoenez,

ERABAKI DA:

2019ko abenduaren 13ko Batzar Arruntaren akta onestea.

2.- 2019ko Kontuak onestea.

Lehendakariak azaldu du osasun egoera dela eta, ezin izan dela egin jarduketan programan aurreikusita zegoen ekaineko batzar berezia. Bertan, urtearen lehen seihilekoaren kudeaketaren berri emateaz gain, kontuak ere onetsi ohi dira. Hori dela eta, honako Batzarrean Batzorde Betearazleak ekainean onetsitako 2019ko kontuen proposamena bozkatuko da.

Lehendakariak Idazkari Nagusiari hitza eman dio kontuen alderdi nabarmenenak azal ditzan.

Idazkariak 2019ko ekitaldiaren emaitzaren eta diruzaintzako gerakinaren berri eman du. Azaldu duenez, aurkeztutako likidazioa NUKFren aurrekontuak, Concejo aldezkarria eta Trebakuntza Plana barne hartzen ditu. Ondoren, diru-sarreraren eta gastuen atalean partida adierazgarrienak aipatu ditu aurrekontuetan adierazitakoarekin erkatuta izan duten betetze maila handiagoa edo txikiagoagatik.

Halaber, Geserlocal sozietatearen kontuak ere aipatu ditu. Horien inguruko informazioa igorritako agiriei erantsirik helarazi da.

Hitza eman zaie bertaratutakoei. Inork hitza eskatu ez duenez, 2019ko kontuen proposamena batzarraren onespenera jarri da.

Bozketa eginik, aldeko 47 boto eta 15 abstentzio daudela, gehiengoz,

ERABAKI DA:

2019ko NUKFren kontuak onestea.

3. gaia.- NUKFren 2020ko Kudeaketa Txostena onestea.

Ondoren, gai-zerrendaren hurrengo puntuari heldu diote: 2020ko Kudeaketa Txostena onesteari.

Lehendakariak batzarraren deialdiarekin batera igorri den txostenaren alderdi adierazgarrienak laburbildu ditu. Bereziki azpimarratu du osasun krisiak aurtengo kudeaketa baldintzatu duela. Horri dagokionez adierazi du ahalegin handia egin dela onesten zihoan araudiaren berri ahalik eta lasterren emateko bai eta toki entitateen proposamenak, zalantzak eta abar Nafarroako Gobernuari helarazteko.

Ondoren, sortu diren informazio-bideen eta foroen berri eman du. Gainera, honakoak ere nabarmendu ditu: Batzorde Betearazleak onetsitako toki entitateen gizartea eta ekonomia suspertzeko proposamena; gerakinak erabili ahal izateko akordioak eta toki entitateen parte-hartzea Europako funtsetan.

Ondoren, kudeaketa txostena Batzarraren onespenera jarri du.

Aldeko 46 boto eta 16 abstentzio daudela,

Gehiengoz,

ERABAKI DA:

NUKFren 2020ko Kudeaketa Txostena onestea.

4. gaia - NUKFren 2021eko Jarduketan Programa onestea

Lehendakariak batzarraren deialdiarekin batera igorritako Jarduketan Programa labur azaldu du. Nabarmendu duenez, oraindik osasun krisia amaitu ez denez, horrek NUKFren jardunean eragina izanen du. Hala, Federazioak lanean jarraituko du etengabe aholkularitza eskaintzeko, informazioa emateko bai eta toki entitateen eskaerak helarazteko. Hala ere, azaldu du horrek ez duela eragotziko finantzazioaren alorrean ere lanean jarraitzea; aurtengo toki entitateen transferentzien eta kapitalaren funtsei dagozkien arau berriak onetsi behar baitira. Gainera, Federazioak Europatik iritsiko diren funtsetan toki entitateen parte-hartzea eskatzen jarraituko du bai eta toki entitateetan administrazio elektronikoa, banda zabalaren hedapena eta despopulazioaren kontrako borroka sustatzen jarraitu ere. Era berean, jasangarritasunaren, berdintasunaren eta herritarren partaidetzaren alorrean lanean segiko du.

Horretaz gain, lehendakariak azpimarratu du, egoerak ahalbidetzen duen heinean, berriro ekingo zaiola Federazioaren ildo estrategikoak definitzeko lanari.

Ondoren, hitza eman die bertaratutakoei. Inork hitza eskatu ez duenez, Jarduketan Programa bozketara jarri da.

Bozketa eginik, aldeko 51 boto eta 15 abstentzio daudela, gehiengoz,

ERABAKI DA:

NUKFren 2021eko Jarduketan Programa onestea.

5. gaia.- NUKFren 2021eko Aurrekontua onestea

Lehendakariak azaldu duenez, aurtengo Aurrekontuak ez du aldaketa handirik; aurreko urtekoarekin alderatuta %0,61 handitu da. Aurten beste behin ere kuotak bere horretan mantendu direla zehaztu du.

Ondoren, Idazkari Nagusiak hitza hartu du NUKFren aurrekontu orokorra, Concejo aldirakariarena eta Trebakuntza Planaren aurrekontua barne biltzen dituen aurrekontua labur azaltzeko. Adierazi du aipatu hiru aurrekontuak aurkezten direla bai eta hiru programa horien aurrekontu bateratua ere, barneko transferentziak kenduta. Aurrekontu bateratu hori 930.450 eurokoa da.

Igorritako agirietan akats bat dagoela adierazi du aurrekontu bateratuaren egoera islatzen duten datuetan. Barneko transferentzietan 34.000 euro islatzen badira ere, hori aurreko urteko kopurua zen. Aurtengoa 30.000 euro da Concejo aldirakariari dagozkion transferentziak 26.000 euro direlako eta planari atxikitako langileen gastuengatik prestakuntza planari dagozkion transferentziak berriz, 4000 euro direlako.

Hitza eman zaie bertaratutakoei eta oharrik ez dagoenez,

aldeko 48 boto eta 17 abstentzio daudela,

ERABAKI DA:

NUKFren 2021eko Aurrekontua onestea.

6. gaia.- Galde-eskeak

Leringo Udaleko alkateak hitza hartu du Federazioaren lana eskertzeko eta krisi honetan oso lagunduta sentitu dela esateko. Ondoren, idazkari lanpostua behin behinean betetzeko zerrenda eguneratuak behar direla adierazi du lanpostu hori berehala bete ahal izateko. Esan duenez, egungo sistemak hutsuneak ditu eta Federazioari eskatu dio behar hori Toki Administrazioako Departamentuari helaraz diezaion.

Horren ostean, Barasoaingo Udaleko alkateak hitza hartu du. Lehenik eta behin, NUKFren lana eskertu du ere bai. Federazioak asko lagundu duela esan du eta pandemiak bere eremua asko kaltetu duela. Ondoren lau gai azaldu ditu: Lehenengoa, bere udalerriko egoitzarekin du zerikusia. Adierazi duenez, egoitza txikia izanik eta Nafarroako Gobernuaren itunpekoa ez denez ez du dirulaguntzarik jaso. Pandemia dela eta, defizit handia dutela esan du.

Egoitzen araudi berriari dagokionez, baldintza berriak nola bete ahalko diren galdetu du.

Bigarrenik, herriko frontoian istiluak eta bizikidetzaz arazoak izan dituztela adierazi du eta halakoak ekiditeko bidezaintzako kamerak ezartzea eskatu zuela baina udal polizia ez dutenez eskaera ez zitzaioela baimendu. Eskatu du halako egoeratan udalerrira txikientzat irtenbideren bat egoteko beharra helarazteko Gobernuari.

Hirugarrenik, administrazio elektronikoa ezartzeko laguntza gehiago egon behar ote diren galdetu du.

Gai horiek adierazi ostean, laugarrenik, Nafarroako Aurrekontu Orokorreari heldu die. Kezka eta ezinegonaz azaldu du gero eta aurrekontu-sail izendun gehiago dagoelako. Haren ustez, mota horietako aurrekontu-sailak ekidin beharko lirake eta horren inguruan zer edo zer egin. Horretaz gain, despopulazioaren inguruan ere kezka azaldu du. Etxebizitzako, hezkuntzako eta garraioeko politikak, gehienbat, arazo horrekin bat ez datozela uste du eta esan du despopulazioaren arazorik handiena zerbitzu falta dela. Bestalde, herri-lanen egoerak ere kezka handia sortzen dio. Dirurik ez dagoela esan du eta bederatzi urte daramatzala bidezaintzarakin egin gabe.

Basaburuako Udaleko alkateak hitza hartu du NUKFren web-orriaren inguruan eskaera bat egiteko. Kontratu-agirien ereduak biltzen dituen atalean gaztelaniako ereduak soilik daudela esan du. Horiek euskaratzeko eskatu du.

Ondoren, Noain-Elortzibarko Udaleko alkateak hitza hartu du eta berriro ere idazkaritzako lanpostuak ordezkatzeko gaiari heldu dio. Ordezkapen-zerrendetan dauden pertsona ia gehienak lanean daudela esan du eta zerbait egin beharra dagoela postu hutsak daudenean horiek bete ahal izateko.

Lehendakariak hitza hartu du adierazitako gaiei erantzuna emateko.

Egoitzen dirulaguntzei dagokionean, Federazioak, jada, egoitza mota guztiak barne hartzeko eskatu zuela esan du baina arlo horretan lanean jarraituko duela. Egoitzek bete beharreko araudi berriari helduta, araudia egiteko garaian egoitzak egokitu ahal izateko trantsizio epe bat eskatu zutela dio bai eta laguntza ekonomikoa eskatu ere.

Bidezaintzako kamerei dagokionean, adierazi du herri txikietan halako egoerak kontrolatzeko bestelako tresnak abiatzea eskatu ahal dela.

Administrazio elektronikoa ezartzeko dirulaguntzen inguruan, laguntza horiek aurrera egin ahal izateko ezinbestekoak direla adierazi du eta arlo horretan lanean jarraituko dutela. Jakinarazi duenez, laguntza berriak abiatuko dituztela adierazi die toki administrazioak. Despopulazioari buruz berriz, lehendakaria ados agertu da eta berak ere uste du jardunaldiak ez direla nahiko

eta benetako neurriak abiatu behar direla. Hala ere, aurtengo osasun egoerak arlo horretan aurrerapausoak ematea ekidin duela esan du. Bat etorri da Barasoingo alkatearekin etxebizitza politketan eta abarretan aukera ugari dagoela zioenean. Eta arlo horretan lanean segiko dutela adierazi du.

Aurrekontu-sail izendunei helduta, esan du Federazioak askotan agertu duela horren inguruko desadostasuna. Zehaztu duenez, aurrekontuei txostena ematen zaienean, ez daude aurrekontu-sail horiek islaturik baina gero parlamentuan izapidetzean, sail horiek sartu egiten dituzte. Horregatik, esan du afera ez dagoela Federazioaren esku.

Lehendakaria herri-lanen inbertsio faltarekin ados agertu da. Denbora luzea darama egoera berean eta inbertsio berriak ez egiteaz gain, dauden azpiegiturak apurtuz doaz. Horregatik, Federazioak arlo horretan lanean jarraitu beharko duela esan du.

Bestalde, web-orriari buruz esandakoa aintzat hartzen duela esan du eta dauden agiriak eta egiten dituztenak euskaratuz joanen direla adierazi.

Azkenik, beste gaiei dagokienean, Federazioak dauden kezkek dagokion departamentuari edota erakundeari helarazten jarraituko duela adierazi du lehendakariak. Beste inork hitza hartu nahi ote duen galdetu du eta inork hitza eskatu ez duenez, saioa amaitutzat eman baino lehen, Federazioaren langileei hain urte zailean egindako lana eta ahalegina eskertu die. Halaber, eskerrik onena adierazi die alkate eta presidente guztiei aurrekaririk gabeko urte honetan egin behar izan duten izugarrizko lanagatik herritarren aurrean zuzenean aurpegia emanez, onetsi ez dituzten arauak aplikatuz eta abar. Azkenik, Gabonak zoriondu ditu guztientzako urtea ongi amai dadila desiratu du eta besarkada handi bat bidali die pandemiaren ondorioak jasaten ari dituzten guztiei. Bertaratutako guztiak agurtu ditu urtean zehar Federazioak lanean jarraituko duela esanez.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, lehendakari jaunak bilkura amaitutzat eman du, goiburuan aipatzen den eguneko arratsaldeko 18:50ak direnean. Idazkari naizen honek honako akta idatzi eta horren fede ematen dut, eta lehendakariarekin sinatu dut.

LEHENDAKARIA,

IDAZKARIA,

Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn.

Berta Enrique Cornago and.